



ATEAK ZABALIK PROIEKTUA

PREST GARA:

Eskolan idazten. Idazketa atazak oinarrizko kompetentziak garatzeko.



KOKAPENA:

Proiektu hau ERETZA BERRI IPlan egiteko pentsatuta dago, matrikulazio kanpaina bitartean . Ikastetxea Gueñesen dago, Sodupe auzoan eta Gueñes BHI, eta Eretza HLIP ikastetxeen batzearekin batera sortu zen 2013/2014 ikasturtean.

Gaur egun 505 ikasle daude, HHko 2 urteko gelatik DBHko 4. mailara arte.

PROIEKTUAREN HELBURU KOMUNIKATIBOA

Goian esan bezala proiektua matrikulazio kanpainaren inguruan egiteko diseinaturik dago. LH6. mailako ikasleak DBHra pasatuko dira, eta nahiz eta ikastetxe berean egon, espazioak, ordutegia, irakasleria eta ohiturak desberdinak dira. Batzuk DBHra pasatzeko irrikaz egongo dira, beste batzuk beldurrez, itxaropentsu... Eta nork ezagutzen ditu hobeto sentimendu hauek egoera berean orain dela bi urte egon ziren ikasleek baino?

Egunotan mota guztietako ekitaldiak egongo dira matrikulazio kanpainaren inguruan: batzarrak, bisitaldiak, erakustaldiak et abar. Bada 2. mailako ikasleak eragile bihurtuko ditugu 6. mailako ikasleen harrera egiteko.

Proiektu honen bidez DBHra etortzeko dauden ikasleei gutunak idatziko dizkiete haiek 6. mailan zeudenean nola sentitzen ziren kontatuz eta hemen topatuko dutena haien hitzekin deskribatuz.

2. mailako ikasleak izango dira bidegileak, kanala gure ikastetxeko bloga: www.blogablogamarinela.wordpress.com bertan argitaratuko baitira gutunak, eta bertan ere idatzi ahal izango dituzte 6. mailakoek iruzkinen bitartez beren zalantzak edo iritziak.

TALDEA:

Proiektua DBHko 2. mailan burutuko da, guztira 63 ikaslek parte hartuko dute. Talde hauek aukeratu ditut bertan bi irakasle aritzen garelako batera asteen bi saiotan.

Taldeak oso anitzak dira, bietan daude PREEko ikasleak, eta emaitzen aldetik 2D, besteak baino apur bat hobea da. Talde guztietan ikasle etorkin pare bat daude, euskaraz nekez moldatzen direnak, baina besteekin batera arituko dira, egokitzapenik egin gabe.

METODOLOGIA:

Lana kooperatiboa izango da. Taldeak lauko bost taldetan banatuko dugu, eta talde bakoitzak gutun bat sortu behar izango du.

Gutuna sortu baino lehen egingo diren jarduera guztiak talde elkarreragileen zenbait metodologia erabilita egingo ditugu.



DENBORALIZAZIOA:

5-6 saio talde bakoitzean

Urtarrilaren azken astean 3 saio talde bakoitzean. Otsailaren lehenengo astean beste 3 saio. Matrikulazio kanpainarekin batera.

Gutunak inauterien astean igoko ditugu blogera, eta oporren ostean 6. mailako irakasleekin jarriko gara harremanetan gure proiektuan parte hartzeko.



MOTIBAZIO JARDUERAK

1.- Taldetan gogoratu 6. mailan zeundetenean eta institutura joateko zeundetenean. Nolakoak izan ziren egun hauek?

Zer sentitzen zenuten?


Irakasleek zer esaten zizueten?

Gurasoek?

Neba-arreba edo lagun nagusiagoek?

Institutua bisitatu zenuten?

Gurasoak batzarretara etorri ziren? Zer kontatu zizueten?



2.- Orain denon artean komentatuko dugu.

3.- Zer uste duzue interesatuko zaiela jakitea orain 6. mailan daudenei? Egin zerrenda. Gero denon artean partekatuko dugu.



1.- Ea ordutegia gogorra den.

2.- Ea irakasleak nolakoak diren...

3.-

5.-

6.-

7.-

8.-

9.-

10.-

TESTU GENEROA AUKERATZEA

1.- Nola helarazi ahal izango genieke 6. mailakoei interesatzen zaien informazioa? Talde txikietan eztabaidatu (15' ahoz)

- a) Bertara joanda hitzaldi bat ematera.
- b)
- c)
- d) Bideo bat grabatuta...
- e)
- f)
- g)



2.- Ideiak talde handian partekatu eta erabaki. Zein testu generoa sortuko dugu 6. mailakoekin harremanetan jartzeko? (10' ahoz)

PLANIFIKAZIOA(10')

1.-Hona hemen idatziko duzuen gutunean ager daitezkeen atalak. Ordena itzazu:

Bukaerako agurra	
Data	1
Gure aurkezpena	
Sarrerako agurra	
DBHko1. mailara joateko geundenean nola sentitzen ginen	
DBHn zer espero genuen	
DBH nolakoa den	
Sinadura	8

2.- Orain osatu gutunaren eskema:

The diagram illustrates the structure of a letter with several orange boxes and blue arrows indicating the order of sections. The sections are as follows:

- Top right: A box with an arrow pointing to the top right.
- Middle right: A box with an arrow pointing to the middle right.
- Bottom right: A box with an arrow pointing to the bottom right.
- Bottom left: A box with an arrow pointing to the bottom left.
- Bottom center: A box with an arrow pointing to the bottom center.

The letter body consists of several horizontal lines for writing, with the boxes and arrows indicating the placement of specific sections.

DATA NOLA IDATZI

ERREPARATU ONDOKO DATEI

Durango, 1983ko martxoaren 7an

Durango, 1983ko martxoaren 7a

Durango, 2005eko apirilaren 13an

Durango, 2005eko apirilaren 13a

1.-ESAN EZAZU EGIA ALA GEZURRA DEN:

- a)Euskaraz hilabeteak hitz larriz idatzi behar ditugu.
- b)Urtea eta eguna zenbakiz idatziko ditugu.
- c)Leku-izena dataren aurrean zein atzean joan daiteke.
- d)Leku-izenari *NON* kasua gehitzen badiogu, egunari ere gehitu behar diogu.
- e)Leku-izena eta urtearen artean ez dugu ezer idatzi behar.
- f) Leku-izenari *NON* kasua gehitzen badiogu, egunari –a artikulua gehitu behar diogu.

2.- MARKATU ZUZENAK DIREN DATAK:









- Sodupen, 2014ko Ekainaren 17a
- Bilbo, 2012ko urriaren 14a.
- Baiona, Urriaren 7a,1999ko.
- Barakaldon, 2010eko azaroaren 11n
- Sestaon,1999ko martxoaren 5ean
- Bakio, 2000ko apirilaren 7an
- Bermeon, 1985eko Abuztuaren 25ean.
- Gordexola, 2016ko urtarrilaren 20a
- Agurainen, 2008ko apirilaren 15ean
- Maule, 2008eko Otsailaren 20ean



3.- DATAK NOLA IDAZTEN DIREN IKASI ETA GERO, IDATZI GAURKOA:

NOLA SENTITZEN ZINETEN DBH-RA PASATZEKO ZEUNDETENENAN?

Gutunean DBHra pasatzeko nola sentitzen zineten kontatu behar duzue. Ariketa honek zuen sentimenduak gogoratzen lagunduko dizue. Aukeratu 6. Mailan hona etortzeko zeundetela nola sentitzen zineten eta zergatia azaldu. Seguruenez sentimendu bat baino gehiago aukeratuko duzue, inportanteena zergatia azaltzea da. Testu zati hori gero gutunean erabiliko duzue.

			
BELDURREZ	GOGOZ/IRRIKAZ	ZALANTZATAN	POZ-POZIK
			
TRISTE	HARRO	LASAI	HASERRE

Gu DBH-ra etortzeko geundenean

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



.....

.....

NOLAKOA DA DBH????

DBH eta LHko 6 maila oso desberdinak edo oso antzekoak izan daitezke, hori ikuspuntuaren arabera da. Gure ikasleek ez dakite zer topatuko duten hemen, bada guk azalduko diegu.

Aukeratu arlo hauetariko bi eta nolakoa den azaldu. Gure helburua 6. Mailako ikasleak lasaitzea eta erakartzea denez, zentratu zaitezte abantaitan, eta saiatu baikorrak izaten!!!

<p>IKASGAIAK</p> 	<p>DBH-ko ikasgai buruz esan dezakegu</p>
<p>DBHko IRAKASLEAK</p> 	<p>DBHko irakasleei dagokienez.....</p>
<p>DBHko IKASLEAK(nagusiak)</p> 	<p>Datorren urtean institutuan txikienak izango zarete, ikasle nagusiak/ek.....</p>

AZTERKETAK



Seguru hemengo azterketengatik kezkatuta zaudetela! Bada, jakin ezazue

JOLASORDUAK



Institutuko jolasordua.....

IRTEERAK/BARNETEGIAK/ IKASBIDAIA




DBHn irteera askotxo egiten dira.....

GUTUNA IDATZI BAINO LEHEN

ORDEZKAPEN LEXIKALA

Idatziko duzuen gutunean badira hitz edo kontzeptu batzuk agian errepikatu daitezkeenak. Ariketa hauen bidez saiatuko gara haien ordezekoak bilatzen hainbestetan ez errepikatzeko.



1.- Testu honetan gehiegizko errepikapena gertatzen da. Erabil itzazu sinonimoak AUTO hitza hainbestetan ez errepikatzeko:

XIX. mendearen bukaera aldera agertu ziren lehendabiziko **autoak**. Hasieran oinezkoak ikaritzen zituzten **auto** zaratatsu eta ketsuak ziren, baina **autoen** hobekuntza aurreratzen zihoan neurrian, jendeak gainditu egin zuen hasierako beldurra. Denborarekin ekonomiaren ardatzetako bat bihurtu da **auto**-industria.
Euskara eta literatura.EREIN

2.- Testu honetan hainbat hiperonimo erabili dira Italiara ez errepikatzeko,azpimarra itzazu:

Gero era gehiago gustatzen zitzaion Italiara. Horri esker irakurri ahal izan ditu hizkuntza horretan Calvino, Pavese eta beste idazle askoren lanak. Baita hizkera horretan dauden opera ederrak entzun ere. Mintzaira guztiz gozoa egiten zaio Italiara.
Euskara eta literatura.EREIN(moldatua)

3.- Azpimarratu TXIMINO hitzaren errepikapena saihesteko testuan erabili diren perifrasiak.

Tximino gehienak ohian tropikaletan bizi dira eta 200 espezie baino gehiago ezagutzen dira. Gizakiaren aitzindari hau zutik ibiltzeko kapaza da, baina grabitate puntua atzerantz duenez, bere atsedean posizioa eserita egotea da. Giza itxurako bizidun honek eskuak trebeziaz erabiltzen ditu.

4.- Beti ezazue ondoko taula, LHko 6. mailakoen gutunean ager daitezkeen zenbait hitzekin. (20')

GOGORATU

Helburua ahalik eta hitz gehien erabiltzea da.

Hitzok ezagunak izan behar dira. (6. mailakoek ulertzeko modukoak)

Zutabe guztiak ez dira bete behar.

Beste hitz batzuk gehitu ahal dituzue zerrendara.

HITZA(K)	SINONIMOAK	HIPERONIMOAK	PERIFRASIA
URDURI			
BELDUR			
IKASLEAK			
IRAKASLEAK			
IKASGELA			
IKASGAIA			
DBH			
EZJAKINTASUNA			
.....			

ATEAK ZABALIK- GUTUNA

GUTUNA IDAZTEARI EKIN BAINO LEHEN GOGORATU DENON ARTEAN ATERATAKO EZAUGARRIAK


- **Data** ikusitako araei erreparatuta idatz ezazue.
- LHko 6. mailako ikasleentzako **hasierako agur** egokia aukeratu.
- Gogoratu gure **gutunaren gorputzak** 3 atal dituela:
 1. Atala: Zuen aurkezpena egin, baita gutunaren zioa zein den. (Paragrafo bakar batean? Bitan?)
 2. Atala: 6. mailan zeundetenean nola sentitzen zineten eta zer espero zenuten adierazi. Aukeratu "*Gure sentimenduak*" fitxan idatzi *duzuen*. Sentipen horietariko bakoitza paragrafo batean garatu? Bitan? Antzeko sentipenak paragrafo bakar batean?
 3. Atala: Deskribatu DBHn topatuko dituzten aldaketarik handienak. Hautatu "*Nolakoa da DBH*" fitxan idatzitako ideietatik garrantzizkoenak.
- **Neurtu** ematen duzuen **informazioa**, hobe gutxi eta argia, asko eta nahasia baino.
- **Saihestu errepikapenak**. Bilatu modu alternatiboak hitz berberak ez errepikatzeko. Kontuan izan ordezkapen lexikalaz egin ditugun aurreko ariketak.
- **Errespetatu paragrafoak**. Segi gutunaren eskema.
- **Ortografia** zalantzak argitzeko, onena hiztegia. Seguruago ibiltzeko testu prozesatzailean idatzi eta zuzentzaile ortografikoa erabili.
- **Agurtu** ikasleak eta gonbidatu gure blogean iruzkinak idazteko.
www.blogablogamarinela.wordpress.com



IDATZI HEMEN GUTUNAREN ZIRRIBORROA



AUTOZUZENKETA



Gutuna idatzi ondoren idatzitakoa berrikusi ondoko taulari jarraituta. Galderaren bati Ezetz erantzun badiozue,egin beharrezkoak diren aldaketak.

IRAKURRI GUTUNA ETA ESAN...	BAI	EZ
Data zuzen idatzita dago?		
Sarreran zuen aurkezpena agertzen da, eta gutunaren helburua?		
6. mailan nola sentitzen zineten eta zergatik azaltzen da?		
DBH nolakoa den kontatu duzue?		
Agurtzen dituzue eta gure blogean sartzeko gonbita luzatzen diezue?		
Idea bakoitza paragrafo batean agertzen da.		
Puntuazioa zuzena da.		
Errepikapenak saihestu dituzue: eta, eta,DBH, DBH		
Ortografia zuzena da?		

EBALUATZEKO TXANTILOIA

(irakaslearentzako materiala)

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	1	2	3	4	5
EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> LHko 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. LHko ikasleei erreferentzia egiten die (deitikoak) Erregistro egokia LHko 6.mailako feedbacka espero da 					
KOHERENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> Gutunaren atalak ongi bereizten dira Sarreran aurkezpena agertzen da Gorputzean haien esperientzia agertzen da. Gorputzean DBH nolakoa den azaltzen da. Agurrean feedbacka agertzen da. Paragrafoka antolaturik dago eta bakoitzak ideia bakarra garatzen du 					
KOHESIOA	<ul style="list-style-type: none"> Paragrafoen bidez progresio tematiko argia dago Testu-antolatzaileak eta lokailuak ondo erabiltzen dira. Puntuazioa zuzena da. 					
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> Perpauak sintaktikoki ondo egituratuta daude. Testua gramatikalki zuzena da atal hauei dagokiela: ADITZA DEKLINABIDEA Lexiko zuzena, errepikapenak saihesten dira. (sinonimia, elementu anaforikoak, kataforikoak, elipsia...) Ortografia zuzena da. 					

